



501/2022 EBAZPENA, EKAINAREN 10EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AGINTZEN DEN ARGITARATZEA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO WEB-ORRIAN ZUZENDARITZA NAGUSIKO LETRADU KORPORATIBOEN LANPOSTU BATZUK BETETZEKO PROZESUAN EGINIKO PROBA PRAKTIKOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 4ko 4/2021 Instrukzioak ezartzen du Letradu Korporatibo lanpostu guztiak aldi baterako betetzeko deialdi espezifikoa egingo dela, instrukzio horren eranskinean ezarritako irizpideen arabera. Era berean, ezartzen da, bidegabeko luzapenak saihesteko, egintza berean deitu ahal izango direla destinoak aldi baterako hornitzeko aurreikusitako sistema guztietarako, eta ebazpenean errespetatu egingo dela, alde batetik, *Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakietan adierazitako lehentasun-ordena, zeinaren bidez onartzen baitira Osakidetzako Ente Publikoaren zerbitzu-erakundeetan lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez eta aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko irizpideak, bai eta lanpostuak behin betiko barne-mugikortasunaren bidez hornitzeko irizpide orokorrak ere*, eta, bestetik, 2021eko uztailaren 21eko akordioa, Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendak egiteko eta kudeatzeko jarraibideak ezartzen dituena.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 551/2021 Ebazpenaren bidez (2021eko abenduaren 10ean argitaratu zen Osakidetzaren webgunean), Zuzendaritza Nagusian destinoa izango duten Letradu Korporatiboko bost lanpostuetarako deialdia egin zen, aldi baterako barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez hornitzeko.

2021eko abenduaren 21ean, Osakidetzaren web-orrian iragarki bat argitaratu zen, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian destinoa duten bost Letradu lanpostu betetzeko berariazko deialdiaren eskaintzarekin, indarrean dagoen abokatu-kategoriako aldi baterako kontratazio-zerrenda osatzen duten pertsonen zuzendua.

Urtarrilaren 12an, berriz ere argitaratu zen iragarki hori, indarrean dagoen aldi baterako kontratazio-zerrenda osatzen duten pertsonen izena emateko epea luzatuz eta, gainera, 2016-2017ko EPEan gainditu eta gainditu ez zutenen zerrendetan parte hartzeko aukera emanez.

2022ko urtarrilaren 25ean argitaratutako Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren urtarrilaren 20ko 39/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko bost Letradu Korporatibo izendatzeko balorazio-batzordeko kideak izendatu ziren.

2022ko urtarrilaren 27an argitaratutako Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren urtarrilaren 26ko 61/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko bost Letradu Korporatibo izendatzeko balorazio-batzordearen osaera aldatu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendariaren otsailaren 7ko 74/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Letradu Korporatibo lanpostu batzuk betetzeko prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agindu zen. Deialdi honetan ezaugarri berdinak dituzten beste bi lanpostu sartu ziren, biak ere hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data iraungita izan gabe. Beraz, prozesu honetan guztira zazpi lanpostu deitu



ziren: batek 3. hizkuntza-eskakizuna du, derrigortasun-data iraungia du, eta beste 6 lanpostuek derrigortasun-data iraungi gabe dute.

2022ko martxoaren 7an, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratu zen 2022ko martxoaren 31n proba praktikoa egiteko deialdia, eta argitalpen horren berri eman zitzaizen, posta elektronikoz, prozesuan interesa zuten pertsoneri.

2022ko ekainaren 7an argitaratu da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian plikak jendaurrean irekitzeko dataren iragarkia: Zuzendaritza Nagusian, 2022ko ekainaren 9an, eguerdiko 12etan. Halaber, iragarki hori argitaratu dela jakinarazi zaie prozesuan interesa duten pertsoneri.

Behin plikak jendaurrean ireki ondoren, hauek dira probara aurkeztu diren pertsonen lortutako behin-behineko emaitzak:

NANA	Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	Plika zk.	Puntuazioa
**** 445**	Balentziaga	Atutxa	Alazne	12	EZ GAI
****378**	Bordagaray	Amirola	María Olga	26	EZ GAI
****644**	Bustillo	Hernández	Idurre	20	7,5625
****699**	Calzado	González	Pilar	25	EZ GAI
****723**	Campos	Arteche	Miguel Ángel	18	5,3075
****432**	De Diego	Diaz	Erik	21	EZ GAI
****058**	Díaz De Cerio	Miño	Iranzu	17	EZ GAI
****502**	Duñaiturria	Artigue	Aranzazu	19	EZ GAI
****265**	Garavilla	Villanueva	M ^e José	22	EZ GAI
****576**	González	Roa	Mikel	16	EZ GAI
****745**	Gutiérrez	Berezo	Ainara	24	EZ GAI
****981**	Hernández	Ercilla	Irene	23	5,0337
****423**	Inchausti	Brandariz	Yaiza	27	5,9137
****058**	Jaen	Orellana	Maria José	30	EZ GAI
****319**	Lapatza-Gortazar	Bengoa	Patxi Jagoba	15	5,2187
****891**	Larrauri	Aranguren	Pablo	11	5,1937
****180**	Lopez	Fontal	Irene	31	EZ GAI
****568**	Lugarezaresti	Aiartzagüena	Alaitz	1	EZ GAI
****681**	Marijuan	Villaverde	Pilar	7	EZ GAI
****918**	Marín	Ugedo	Julio	4	EZ GAI
****626**	Mariñelarena	Garciandia	Jose Manuel	10	6,4025
****913**	Masot	Montserrat	Montserrat	2	5,1031
****194**	Minondo	Verón	Carlos	8	EZ GAI
****151**	Monsalvo-Agotegaray	Pérez	María Gabriela	29	EZ GAI

****935**	Pinedo	Testa	Begoña	6	EZ GAI
****891**	Rey	Montaña	Alba	3	EZ GAI
****526**	Ruíz de Loizaga	Calvo	Eduardo	13	5,9844
****842**	Santa Cruz	Santos	Zuriñe	5	6,9125
****751**	Tobillas	Amestoy	Nagore	14	6,3437
****270**	Vigiola	Zulueta	María José	28	EZ GAI
****920**	Zaballa	Bermeosolo	Miren Nekane	9	EZ GAI

Horregatik guztiagatik, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratzeko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Letradu Korporatiboen hainbat lanpostu batzuk betetzeko hautaketa-prozesuaren barruan egindako proba praktikoaren behin-behineko emaitzak.

Bigarrena.– Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 4/2021 Instrukzioan, Letradu Korporatiboaren lanpostu funtzionalak aldi baterako betetzeari buruzkoan, ezarritakoaren arabera, izangaiek **hamar egun balioduneko epea** dute, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko *urriaren 1eko Administrazio Publikoen 39/2015 Legean* onartutako bitartekoen bidez.

Erreklamazioak kontuan hartzeko, ahoz defendatu beharko dira Balorazio Batzorde osoaren aurrean. Hauek dira defentsa egiteko datuak:

Eguna:

2022ko uztailaren 7a, 10:00etan.

Lekua:

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia
Araba kalea, 45 (Vitoria-Gasteiz)
1. gela, beheko solairua

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 10a



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA